



LIBURUA

Maitasunaz baino gehiago



MIREN ETA ERROMANTIZISMOA RAMON SAIZARBITORIA

EREIN, 2019

245 orrialde / Gazteentzat

XABIER ETXANIZ ERLE

Lehendabizi, Klara hasi zen Saidekin ateratzen. Hitz horiekin ekiten dio Ramon Saizarbitoriak gazte eta helduentzat idatzi duen azken liburuari. Hasieratik ikusten dugu maitasunaren edo maite minaren inguruko nobela izango dela; horretaz eta harreman hauen inguruan sortzen diren eztabaidez, tentsio uneez, goxotasunezko momentuez... ere bai. Klara ibiliko da Saidekin, kurtsoa aurreratuta dagoela agertu den gazte "ezin ederragoa", baina Saidek Mirenen bihotza ere xamurtu du: "Miren bai erakarri zuela Saidek lehendabiziko egunetik. Berehala ikusi zuen oso argia eta erabat atsegina zela, ongi hezia eta izugarri guapoia izateaz gainera". Miren Klararen laguna da eta hasieran honi lagunduko dio Saidekin duen harreman erdi faltsuan, harik eta adiskidetasuna

apurtu maitasunari bide emateko.

Nobelan gizakion harremanak ageri dira, gazteen arteko maitasuna, lehen uneak, amodioa egiteko asmoa... Harreman horrek gainerakoekiko erlazioetan sortarazten dituen gorabeherak, eta abar. Baina horrez gain, nobela honetan beste hainbat kontu ere azaltzen dira –bizitza ez dela zuri-beltzekoa, jakina–: Said marokoarra da –musulmanekiko mesfidantza, terrorismoarekiko lotura...– eta pobrea –ezingo du medikuntza ikasi familiari lagundu beharko diolako–; Mirenek immigranteekin kolaboratuko du Gobernu Kanpoko Erakunde batean... eta egoera, gertakari, ekintza hauek guztiek hainbat gogoeta sortarazten dituzte Mirenengan: "Askotan gogora etortzen zitzaion kontua zen, immigranteekin lana egiten zuenetik. Zenbat gau-

za onera zegoen ohituta, eta ez zekien estimatzen: dutxa, berokuntza, berarentzat bakarrik gela bat edukitzea, ikasi ahal izatea".

Saizarbitoriak gaur egungo gazte bati gerta dakiokkeen maitasun istorioa konstatzen digu, dituen gorabeherak, zorion eta negar uneak, bakardade eta lagun sentimenduen azalduz, baina gaur egungo gizarteaz gogoeta egiteko hainbat elementu, gertakari, jokabide, ere badauzkagu *Miren eta erromantizismoa* nobela eder honetan. Lastima editore lanetan falta izan den orrazketa testuan ageri diren hainbat akats ezabatzeke –"ahulki gainean"; "ari entzunda"; "amek ez ziren"...; baina detaile txiki hauek ez dute eragozten irakurketa eta liburuan, eta bertan ageri diren istorioetan, murgiltzea eta gozatzea. ●